



ORIOKODALA



ORIOKO HONDARTZAN SURF-ESKOLAK BAIMENTZEKO ARAUDIA

1- SARRERA

Azken hamarraldi honetan gero eta jende gehiago aritzen da surfean, batez ere udako denboraldian. Hori dela eta, kirol-modalitate hau aukera ekonomiko nahiz turistikoa bilakatu da eta, horretxegatik, Orioko hondartzan surf-ikastaroak bideratzen dituen sektorea arautzeko premia ikusi dugu.

Jarduera hori arautzeari begira, eta surfa balioetsi eta, horrekin batera, gure hondartza erabiltzen duten pertsonei eragozpenik ez sortzeko, alderdi hauek hartu dira kontuan:

a.- Itsasoa denon ondarea da.

b.- Orioko Antilla hondartzak 220 metroko luzera dauka urertzean, eta erabiltzaile asko eta asko dira bertan ur kirol edo jardueraren bat egitera hurbiltzen direnak: bainulariak, surflariak, arrantzaleak eta abar. Hondartzaren bi alboetan itsas korrante arriskutsuak sortu ohi direnez, eta sorosleek haietan bainua debekatu behar izaten dutenez, tarte oso mugatua geratzen da bai bainularientzat bai surflarientzat.

c.- Orioko hondartzan surf-ikastaroak eskaintzera etortzen diren eskolak gero eta gehiago dira. Surf-eskolek udalerriaren garapen ekonomikorako eremu estrategiko bat sortu dute eta, araudi honen bitartez, aukera-berdintasuna eta udal mailan izango duen eragin positiboa bermatu nahi dugu.

d.- Udalak, kantitatearen alde baino, kalitatearen aldeko apustua egin du. Horrek esan nahi du hondartzako erabilerak sailkatu egin behar direla; horien artean, surf-eskolak.

e.- Hondartzako erabiltzaileen eta hango zerbitzu guztien segurtasuna bermatu behar da.

f.- Beharrezkoa da, baita ere, arau-hausteak ikuskatu eta zigortzeko sistema bat jartzea.

2. BAIMENAK

Orioko Udalak, interesatuek aurrez hala eskatuz gero, Orioko hondartzan surf-ikastaroak eskaini ahal izateko baimena banatuko du, gehienez ere 24 hilabeteko iraupenarekin.

Udalaren baimen hori Espainiako Gobernuko Kostaldearen eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiak baimentzearen baitan baldintzatua egongo da.



ORIOKOU DALA



Orioko Udalaren helburua herriko hondartzan esperientzia eta jardunbide egokia duten surf-ikastaroei eta, ondorioz, ikastaroak bideratzen dituzten surf-eskolei jarraipena ematea da.

Uda partean jende emana handia izaten denez eta, Orioko hondartza eremu mugatua denez, Orioko Udalak surf-ikastaroak emateko **gehienez ere baimen bat** onartuko du.

Dena den, uda denboraldian hondartzako sorospen-zerbitzuak kudeatuko duen entitateari kasu egin beharko dio baimendutako eskolak eta itsas kiroleko bideratuta dagoen eremua soilik erabili.

Baimena eskatzeko epea amaitu ondoren, eskabide guztiak aztertuko dira, eskatzaileek betebeharrak guztiak betetzen dituztela egiaztatzeko.

Betebeharrak egiaztatu ondoren, eskabide bat baino gehiago baldin badago, UDALEKO KIROL BATZORDEAK dagokion baremazioa egiteari ekingo dio (eranskinean dauden puntuazio-irizpideak jarraituz).

Irizpideen arabera puntuaziorik handiena lortzen duen eskolak edo eskabideak lortuko du horretan aritzeko baimena.

3.- ESKAERAK

Eskaerak hamar laneguneko epean aurkeztu beharko dira Orioko udaletxeko erregistro orokorrean, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita. Eskara horretan Surf Eskolaren Proiektua aurkeztu beharko da. Proiektu horrek, gutxienez, hauek zehaztu beharko ditu:

- Eskolak dauzkan instalazio eta baliabide materialen zerrenda.
- Ikastaroak aurrera eramateko erabiliko duen metodologia.
- Ikastaro motaren araberako tarifa-proposamena.
- Ikastaroak bideratzeko jarriko dituen giza baliabideak. Monitorean formakuntza surf arloan eta ur-sorospen ikastaroen ziurtagiriak.

4.- KANONA

Kanon gisara, lizentzia jasotzen duten enpresak Gipuzkoako Kosta Zerbitzuak Udalari kobratutako tasa ordaindu beharko du.



ORIOKUDALA



Tasa Udalari kobratuko zaio eta, ondoren, Udalak dagokion ordainagiria bidaliko dio surf-eskolari.

5.- BETEBEHARRAK

Interesatuta dagoen surf-eskolak, dagokion baimena erdietsi ondoren, indarrean dauden ondorengo araudiak eta bestelakoak bete beharko ditu:

- Datuak babesteko legea
- Laneko prebentzioari eta segurtasunari buruzko legea.
- Generoaren Legea.
- Monitoreek aurrekaririk ez dutela dioen aitortpena (adingabeekin loturik).
- Orioko Udalak ezarritako hizkuntza-baldintzak.
- Bideraturiko ikastaroak itsas kiroletarako erreserbatuta dagoen eremuan eman beharko dira; hau da, bandera gorri-urdinaz mugatutako eremuan.
- Hondartzako sorospen-zerbitzuen aginduak une oro beteko dira.
- Ikastaroan dauden ikasle eta monitoreak identifikazio berezia duen "lycrarekin" ibiliko dira.
- Monitore bakoitzeko gehienez 6 ikasleko taldeak osatuko dira eta, asko jota, 3 talde arituko dira ordu berean.
- Uda kanpainako surf-ikastaroak eskainiko ditu.
- Euskadin ondasunak merkaturatzen dituzten edo zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiek (saltokiak, tabernak eta jatetxeak, banku-entitateak, aseguru-etxeak, gremioak...), baita zerbitzuak etxez etxe eskaintzen dituztenak ere, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen esku nahitaez eduki behar dituzten **erreklamazio-orriak** eduki.

Gainera, jarraian azaltzen diren agiriak ere aurkeztu beharko ditu:

- **Erantzukizun Zibileko Asegurua**, 600.000 €koa, ikasleei edota hirugarrengeoi egiten zaizkien kalteak estaliko dituena, zerbitzua burutzeko beharrezkoak diren lanen ondorioz eragindako kalte eta galera guztien kalte-ordaina ematera behartuta egongo baitira, eta, horrez gain, poliza ordaindu izanaren egiaztatzea.



ORIOKODALA



- **EJZren 934 epigrafean alta eman izana** (Establezimendu iraunkor batetik kanpoko irakaskuntza).
- **Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin ordainketak egunean dituela ziurtatzen duen** egiaztagiria.

6.- IKUSKAPEN-SISTEMA

Orioko Udalak berari egokiak iruditzen zaizkion bitartekoak jarriko ditu, arauak betetzen direla eta jarduerak ondo funtzionatzen duela bermatzeko.

7.- MEMORIA

Urtero, abenduaren 31 baino lehen, **Ustiapen-memoria** bat aurkeztuko dio Orioko Udalari, dokumentu horretan, jardueraren benetako nondik norakoaz gain, memoria ekonomiko bat ere aurkeztu beharko du.

8.- HIZKUNTZA-BALDINTZAK

Surf-eskolak, oro har, administrazioaren hizkuntza-araudiaren arabera jokatu behar du eta, bereziki, Orioko Udalak indarrean duen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Ordenantzan ezarritako arau eta irizpideak bete beharko ditu:

- Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak Udalaren lan-hizkuntzan izango dira; hau da, euskaraz.
- Jendearen bistan jartzen dituen errotuluak, kartelak, oharrak, markak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz idatziko dira. Beste hizkuntzaren batean ere jartzen direnean, lehentasuna emango zaio euskarazko testuari.
- Orioko haur eta gazteentzat antolatutako prestakuntza-ikastaro guztiak euskaraz emango ditu; eta, arau orokor gisa, euskaraz izango dira surf-eskolak antolatzen dituen gainerako prestakuntza-ikastaroak ere. Ikastaroa beste hizkuntzaren batean antolatzen bada, beti bermatu beharko da parte-hartzaile euskaldunek ikastaroa euskaraz jarraitzeko aukera izatea.



ORIOKUDALA



ERANSKINA: Puntuazio-irizpideak (Guztira, 100 puntu)

Entitatearen izaera	
Irabazi asmorik gabeko entitatea izatea	10 puntu
Orioko herriko entitateen erregistroan erroldaturik egotea	10 puntu
Eskolak dauzkan instalazio eta baliabide materialak	
Hondartzatik gertu zerbitzuak emateko instalazioak izatea: aldagelak...	10 puntu
Hastapenerako materiala izatea: "Soft taulak", neoprenoak...	5 puntu
Ikastaroen metodologia	
Ikastaroen metodologia orokorra: hondartzarekiko, ingurumenarekiko...	10 puntu
Ikastaroen hizkuntza-tratamendua	5 puntu
Uda kanpainaren metodologia orokorra	5 puntu
Aniztasun funtzionala duten pertsonekin ikastaroak egiteko aukera	5 puntu
Giza baliabideak	
Begiraleen surf arloko titulazioak	5 puntu
Begiraleen sorospen-titulazioak	5 puntu
Begiraleen euskara-titulazioak	5 puntu
Bestelakoak	
Proposatzen diren ikastaroen tarifak	5 puntu
Proposatzen diren beste kirol jardueren kudeaketa	5 puntu
Aurreko urteetan Orion surf-ikastaroak ematen daukan esperientzia	5 puntu
Bestelako hobekuntzak	5 puntu
	100 puntu